



Azaroaren 25ean **Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko Eguna** ospatuko dela-eta, FSC-CCOO Euskadiko Emakume Idazkaritzatik gure gaitzespena adierazi nahi dugu, berriro ere, emakumeen aurkako indarkeria mota ororen aurrean.

Indarkeria honen adierazpenik latzena euren bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik urtez urte hiltzen diren emakumeak dira, baina ezin dugu ahaztu emakumeek indarkeria pairatzen dutela bere era guztietan (sexu jazarpena, sexu zioko jazarpena, sexu esplotazioa, eraso fisikoak eta psikologikoak, gorputz-atal mozketak, e.a....). Indarkeria mota hauek guztiek lotura komuna dute, emakume eta gizonen artean dauden ezberdintasunak alegia.

Horregatik, ezin dugu onartu krisia aitzakia izatea gobernuek aurrekontu murrizketak egin ditzaten berdintasun politikerara, gizarte prestazioetara, mendekotasuna dutenen zaintzara, edo sexu- eta ugalketa-eskubideetara zuzendutako partidetan. Bakarrik hezkuntza, sentsibilizazioa eta kontzientziazioarekin amaituko dira genero ezberdintasunak.

FSC-CCOO Euskadiko Emakume Idazkaritzatik deia zabaltzen dugu Euskadin azaroaren 25erako antolatuta dauden ekintza ezberdinetan parte hartzeko:

- **Bilbo:** Arriaga Plaza, 12:30etan.
- **Donostia:** Boulevard, 12:00etan.
- **Gasteiz:** Diputazioa, 12:30etan.

Eta sindikatuak berak antolatzen dituenetan:

- **“Genero indarkeriaren globalizazioa”** Jardunaldia: **osteguna, azaroaren 22an, 10:30etan.** Burtsa gizarte etxean (Pilota kalea,10 – Zazpi Kaleak - Bilbo).

Agur bat,

Itziar Cañamero Álvarez
FSC-CCOO Euskadiko Emakume Idazkaritzako arduraduna